



Orendaingo kultur etxea, haizearen eraginez, teilaturik gabe. JON MIRANDA

Komunikazio hesiak hautsi eta zeinu hizkuntza bultzatzeko

Gainditzen pertsona gorren elkarteak XVII. Sentsibilizazio Astea antolatu du; gorren komunitatea osatzen duten pertsonen errekonozimendurako espazio bat eskaintzea da aurtengo helburu nagusietako bat // 4

Emakume helduen indarkeriaren aurkako lehen foroa antolatu dute

Urriaren 27an izango da Tolosan, Oneka emakume pentsiodunen plataformak antolatuta; Maribel Pizarro, Nerea Almazan eta Oihana Andueza izango dira hizlariak // 6

Bost emakume migratzailearen lekukotza jasotzen duen liburua aurkeztu dute

'Sei metroko hesia saltatu nahi izan zuen emakumea' liburua aurkeztu du CEAR-Euskadik; Saharaz azpiko emakumeek bizi duten indarkeria ikusaraztea izan du helburu lanak // 5

Kalte handiak eragin ditu haizeteak Tolosaldean

Herenegun izandako haize bortitzaren ondorioz, Orendaingo kultur etxeko teilatua erori da; batez ere Alegialdeko herrietan, zuhaitzak erori ostean, hainbat errepide itxita egon dira // 3



Martin Ugalde, Kultur Parkea - 20140 Andoain
943 304 315 -
info@izt.eus
www.izt.eus

ERALDAKETA DIGITALEAN, BEHAR DUZUN BIDELAGUNA





Tolosatzen prozesuaren barruan egindako bileretako bat. ATARIA

Tolosatzen prozesuak emandakoa azalduko dute

Parte hartze prozesuak orain arte emandakoa aurkeztuko dute datorren asteartean, urriaren 27an; zoom plataforma bidez egingo dute topaketa

Erredakzioa Tolosa

Orain inoiz baino gehiago, guztion artean Tolosatzen partaidetza prozesuak orain arte emandakoa aurkeztuko dute hurrengo asteartean, hilaren 27an egingo duten saioan. Ez da aurrez aurreko saioa izango, topaketa zoom plataforma bidez egingo dute, 18:30etik 20:00etara.

Parte hartze prozesuaren aurkezpena egitearekin batera, 2021 urteko aurrekontuei begira partaidetza prozesutik jasotako ekarpenen inguruan udalean emandako urratsak azalduko dira. Ekintza edo Keinutxikien aurkezpena (partaidetza dinamika) ere egingo da.

Saio presentziala ez egiteko arrazoi nagusia osasun baldintzekin zerikusia duela azaldu dute. Aurreko saioetan bezala, alde zuzenetik izena eman behar-

ko da parte hartzeko, eta ondoren emango zaizkie izena eman dutenei plataformarako lotura eta gakoak.

BALANTZE ONA

Tolosatzen parte hartze prozesuak sei saio izan ditu orain arte, eta 94 herritarrek parte hartu dute, horietatik gehienak emakumezkoak. Herritarrez gain, ordezkari politikoak zein teknikariak ere izan dira topaketetan. Saio batzuk aurrez aurre egin dira, eta beste batzuk, berriz, datorren asteartekoa bezala, *online*. Tolosako Udaletik adierazi dutenez, «oso harrera ona izan dute».

Norbanakoen konpromisoa sustatzea ere izan du helburu prozesuak, elkarlan publiko-komunitarioa sustatzeko. Tolosa eraldatu, suspertu eta hobetzeko, eta bereziki komunitatea sendotzeko, ekintza txikiak landu dituzte. Bada, hurrengo aste-ko aurkezpenean horien berri emango dute, eta ondoren, gizarteratu egingo dute, tolosar guztien atxikimendu eta konpromisoa lortzeko helburuarekin.

Igande honetan amaituko da bonuak erosteko epea

TOLOSA // Merkataritzara bideratutako bonuekin gertatu bezala, ostalaritzako bonu-orriek ere harrera ona izan dute. Hauek eskuratzeko aukera, igandean, hilaren 25ean amaituko da. Dagoneko zenbait tokitan agortu badira ere, ale gutxi batzuk besterik ez dira geratzen zenbait establezimenduetan: Ikatza, Plan B, Botarri, Izarra, Eguzki, 66, Saikin, Amaiur, Alondegia eta K2 tabernetan, hain zuzen.

'Koplariak koplari' saioa estreinatuko dute bihar

ALTZO // Xabier Amurizak, Agus Barandiaranekin aurkeztuko du emanaldia bihar, Batzarremuñoko areto nagusian, 19:30ean. Hitzaldi musikatu honetan, ardatz bezala hartuko dira azken hamarkadetako koplak eta gaur egungoak. Herri musikan izandako eragina kantatuz azalduko da. Musikaren bitartez erakutsiko dute bertsolaritza eta koplaren ezberdintasuna.

Musika Bandaren kontzertua larunbatean

TOLOSA // Udal Musika Bandak egitarau berezia prestatu du larunbatean 19:00etan Zerkausian eskainiko duen kontzerturako. Kasu honetan, Tolosarekin edota Bandarekin erlazioa duten egileei keinu txiki bat egitea izan da asmoa eta horretarako beraien kantu edo obrak eskainiko ditu bandak, hala nola, Torre Muskiz-ko Konde zen musikari tolosar klasikoa edo bandako partaide edo kolaboratzaile izandako Mirari Martin, Ivan Arostegi, Jon Esnaola, Xabier Zelaia eta Eugenio Delgado.

Animaliei tratu txarra emateagatik epaituko dute ganaduzale bat

BERASTEGI // Gipuzkoako ganaduzale bat epaitua izango da Donostian animaliei tratu txarra emateagatik, zehazki, 45 behi gosez hiltzen uzteagatik Berastegiko baserri batean. 2017an gertatutakoa epaituko da; fiskaltzaren arabera, ganaduzaleak bere jabetzakoak ziren animaliei jaten emateaz utzi ostean hil egin ziren.

Iñigo Izagirre garaile, bigarren kanporaketan

Pello Errota sariketako finalistak Jon Martin, Izarne Zelaia, Iñigo Izagirre, Unai Mendizabal, Erika Lagoma eta Amaia Iturriotz dira

Harituz

Irurako kanporaketaren ostean, erabakita daude II. Pello Errota bertsolari sariketako sei finalistak: Jon Martin, Izarne Zelaia, Iñigo Izagirre, Unai Mendizabal, Erika Lagoma eta Amaia Iturriotz. Irurako kanporaketan, Iñigo Izagirre (271,5) eta Unai Mendizabal (269) izan ziren lehen bi sailkatuak eta ondorioz, finalerako txartela zuzenean eskuratu dutenak. Haien atzetik sailkatu dira Amaia Iturriotz (259,5), Odei Barroso (257), Xabat Gallettebeitia (253,5) eta Saioa Alkaiza (252).

Eskualdeko nahiz eskualdetik kanpoko bertsozaleek erabat bete zuten Irurako kulturguneko aretoa eta giro beroa sumatu zen saio guztian zehar. Bertsosaldi bi-ziak eta txalo zaparrada luzeak tartekatu ziren eta bertsolariek beraien maila onena erakutsi ez zuten arren, entzuleek egindako ahalegina eskertu zieten behin eta berriro.

Zortziko handian ofiziotan hasi zuten sei bertsolariek saioa. Ariketa horretan, azpimarratzekoa izan zen Xabat Gallettebeitia eta Saioa Alkaizak lapurretan jasaten ari zen auzune bateko herritarren azaletik. Lapurretei aurre egiteko kaleak kameraz bete nahi zituen Xabatek, Saioak ez. Zortziko txikiko ariketan, berriz, Unai Mendizabal eta Iñigo Izagirrek piraguan ibiltzera joan diren bi lagun paperetik egindako saioa izan

zen borobilen eta jendearengan barre ugari sortu zuten beraien bertsoek. Hamarreko txikian, berriz, saio txukunak egin zituzten bertsolariek baina bakarkakoan iritsi ziren alerik onenak. Odei Barroso hiru puntu-erantzunak eta Xabat Gallettebeitiaren bakarkako bi bertsoak izan ziren azpimarragarrienak.

FINALERAKO TXARTELAK SALGAI

Azaroaren leian, Asteasun izango da Asteasuko Udalak eta Harituz Bertsozale Taldeak antolatutako II. Pello Errota bertsolari sariketaren finala. Finalerako sarrierak salgai daude dagoeneko Asteasuko Patxine eta Iturri Ondo tabernetan, Zizurkilgo Iriarte jatetxean eta Villabonako Amasa kafetegian, 5 euroko prezioan.

Abaltzisketa eta Irurako kanporaketetan bezala, Asteasuko finalean ere giro bikaina izatea espero dute antolatzaileek. «Orain arteko saioetan, bertsolari zein bertsozaleek ezin hobeto elkar hartu dute eta giro beroa sortu da kanporaketetan» adierazi dute Harituzeko ordezkariak. COVID19ak eragindako egoera dela eta, segurtasun neurri zorrotzak betetzen ari dira antolatzaileak txapelketetako saioetan, hala nola, bertsolari zein bertsozaleei tenperatura hartuz eta hidrogelarekin eskuak garbiaraziz. «Guretzat oinarritzakoa da bertsozaleen osasuna eta ekitaldia segurtasun berme guztiekin egingo da».



Iruran egin zen saioa une bat. ATARIA

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Ostalaritza. Zizurkilgo taberna batean zerbitzari bat behar dugu. Interesatuek deitu: 652 745 879.

Haizeak Orendaingo kultur etxeko teilatua eraman du

Kalte nabarmenak eragin dituzte haizeteek eskualdean, Alegialdeko herrietan batez ere; errepide asko itxita egon dira zuhaitzak erori direlako

Erredakzioa

Segurtasun Sailak alerta laranja aktibatu zuen herenegun, haize-agatik. Haize-boladak 110-120 kilometro ordutik gorakoak izan ziren haizeguneetan eta 90-100etik gorakoak gainerako eremuetan.

Larraitzen 154 kilometro orduko haizeteak neurtu ziren, hala ere. «Haizelekua da gurea, baina oraingo honetan nabarmenagoa izan da. Gure anaiak eguraldi estazioa du Larraitzen eta 21:00etarako 154 kilometro orduko haizeteak neurtu zituen. Argia joan zen 01:00a inguruan eta ordutik aurrerakoak ezin neurtu, baina latzak izango ziren», esan du Abaltzisketako Jon Zubizarreta alkateak.

170 KILOMETRO ORDUKO

Orendaingo beste bizilagun batek 170 kilometro ordukoak ere neurtu zituen eta herri horretan eman zen gertakaririk larriena, kultur etxeko azken solairua eta teilatua eraman baitzituen haizeak. Azpitik sartu zen haizea, liburutegiko leiho txikietatik, teilatua altxa eta bota egin zuen.

Eskualdeko errepide asko zuhaitz eta adarrez beteta esnatu ziren atzo, eta kalteak zein eragozpenak sortu ziren. Abaltzisketako haur guztiak ezin izan zi-



Orendaingo kultur etxeko teilatua eman zuen haizeak; ondoko etxea hutsik dago. J. MIRANDA

ren eskolara iritsi, Berastegitik Tolosarako eta Alegia eta Ugarte arteko errepideak itxita egon ziren lehen orduetan, baita Zizurkilen Olentzo aldeko errepidea ere.

Bidania-Goiazatik jaitsi eta bertara igotzeko errepidean ere arazoak izan ziren eta herriguneetan ere egon ziren arazoak. Era berean, hainbat puntutan argindarrik gabe egon ziren, baina goizalderako argia zuten berriz eskualdeko herri gehienetan.

Eguerdian eman zuen amaitezat Segurtasun sailak haizea-

rengatik indarrean zeuden alerta laranja eta abisu horia.

AUZOLANA

Suhiltzaileek lan handia izan zuten. Dei asko jaso zituzten errepideetan zeuden zuhaitz eta adarrak kentzeko, baina herri txikietan herritar asko aritu ziren lan horietan. «Herriko Whatsapp talde bat dugu eta 06:00etan hasi gara errepidea itxita zegoela esanez, Gaintzatik joan beharra zegoela, Amezketan zuhaitz batek kamioia harri-patu zuela, Orendaingo teilatua-

rena... eta baserri bideetan adarrak zeudela nonahi. Baserri bideetan dauden zuhaitzak-eta bizilagunek eurek kentzen dituzte, baita errepidean daudenak ere. Errepide nagusietan egoten da zeregina, eta herri txiki haue- tan gu ibiltzen gara horretan», esan du Zubizarretak. «Dei asko jaso ditugu udaletxean herritarren partetik; zuhaitzak bota dituela, kristalak puskatu...».

Atzo goizerako haizea lasaia- go zebilen eta ondorengo orduetan ere ez da espero haizete ber- ririk.

«Haizeak liburutegiko leiho txikiak ireki ditu eta teilatua azpialdetik altxa du»

MIGEL ANJEL ARSUAGA ORENDAINGO ALKATEA

J.M.-N.V. Orendain

Gutxi gorabehera 10 urte dituen eraikina da kultur etxea. Inbertsio handia eginez ireki zuten eta egoerari buelta nola eman aztertzen ari dira udalean. «Ez dakigu zenbat denbora beharko dugun dena jartzeko. Herri txi-

kietan aurrekontu txikia dugu eta ondo begiratu behar dugu guztia. Zorionez ez da kalte per- tsonalik egon, parean dagoen eraikina hutsik dago eta kalean ez zebilen inor», esan du alkate- ak. Garbiketa egiten eta egoera aztertzen aritu ziren atzo, «kon- ponbide bat aurkitu nahian ga- biltza, kezkatuta».

Nola konturatu zarete haize- ak kultur etxeko teilatua oi- narritik atera duela?

Goizaldeko ordu bata aldera izan da. Zarata handia entzun dugu, atera, eta ikusi dugu teila- tua bota duela.

Ba al dakizue zenbateko hai- zeteak egon diren?

Eraikin berri horren ondoan da- goen gizon batek badu etxean

haizea neurtzekoa eta 170 kilo- metro orduko haizetea neurtu duela esan du. Beldurra ematen zuen egia esan.

Gogoan al duzue horrelako haizeterik Orendainen?

Horrelakorik ez. 2008 inguruan ere izan ziren haizete handiak, baina ez horrelakorik. Bizilagun guztiak ikaratuta daude, nik uste herritar guztiak lo egin gabe daudela.

Kultur etxeko eraikinaren atzealdetik etorri da haizea...

Txindoki aldetik etorri da bai, hego haizea izan da. Urtero iza- ten da, baina aurtengoan ez da- kit zer pasa den.

Teilatuaren azpialdean zego- en beiratea bota du haizeak.

Leiho txikiak ziren, eta horiek

bota ditu. Dirudienez haizearen indarrarekin leihoak ireki dira eta azpialdetik altxa eta bota egin du, buelta emanda baitago teilatua.

Zein erabilpen ematen dio- zue kultur etxeari?

Teilatupeko horretan liburute- gia zegoen, behean gimnasioa dago eta beheko solairuan haur- tzaindegia.

Eta zer egingo duzue orain?

Lehen gauza haurtzaindegia le- kualdatzea izango da, nora era- man ikusten ari gara eta ikusiko dugu gero zer egin. Udaletxean badaude gela batzuk erabilga- rri, eta behar bada haurtzainde- gia hor jarriko dugu, baina hitz egiten ari gara, ez dakigu orain- dik.

56 positibo gehiago atzeman dituzte

Erredakzioa Tolosa

Osasun sailak emandako datuen arabera, 10.817 PCR proba egin zi- ren herenegun, eta, horietatik, 819 (%7,6) positiboak izan ziren. Gipuzkoan 377 izan ziren positi- boak, tartean, 56 Tolosaldekoak. Tolosan 24 positibo berri atze- man dituzte, Albizturren eta Amasa-Villabonan seina, Alegian 5, Zizurkilen 4, Ibarran 3, Hernial- den 2 eta Abaltzisketan, Amezke- tan, Anoetan, Asteasun, Beraste- gin eta Iruran bana.

Tolosako joerak kezkarria izaten jarraitzen du, azken hama- bost eguneko intzidentzia tasa kontuan hartuta, kolore gorritz baitago, 752koa baita 100.000 biz- tanletik. Amasa-Villabonak kolo- re laranjarekin jarraitzen du, 389ko tasarekin. Osasun eremuei dagokienez, Tolosaldea kontuan hartuta, gorritz ageri da, 625eko ta- sarekin. Azpierrean, Alegia (1.140) eta Tolosaz (684) gain, Vi- llabonako (545) eremua ere kolore gorritz ageri da azken datuetan.

Berrobiko Udalak udal zergak izoztu ditu

Erredakzioa Berrobi

Zerga, tasa eta prezio publiko guztiak izoztea erabaki du Berro- biko Udalak. David de Miguel al- kateak azaldu duenez, «helbu- rua gure bizilagunen presio fiskala ez areagotzea da, eta be- reziki, egoera ekonomiko txarre- nean dauden familiena». Era be- rean, etxebizitzetan igogailuak eta arrapalak jartzeko egiten di- ren irisgarritasun obrei dagokien zerga %2,5era murriztea ere era- baki du udalak. Erabaki hori au- zokideen erkidegoan igogailuak jarri behar dituzten herritar ba- tzuek egin duten eskaeraren au- rrean hartu dute.

Tokiko ekonomia suspertzen laguntzeko, presio fiskala ez igo- tzea erabaki du De Miguelek. «Gure herri osoari mesede egin- go dio, familia askok gaur egun bizi duten larritasuna arinduko baitu, baita itota dauden nego- zioen jabeek eta maizterrek bizi dutena ere», gaineratu du.

Europako Ondarearen Jardunaldien barruan, bi saio Topic-en

Doako bisita gidatuetan parte hartzeko aukera izango da urriaren 24an eta 31n; izena aurrez ematea eskatu dute

J. Artutxa Dorronsoro

Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin, Topic zentroak bi jarduera antolatu ditu datozen egunetarako Europako Ondarearen Jardunaldiak ekimenaren barruan. *Kontaiguzu ondarea! Patrimonio y Educacion* da aurtengo edizioarako aukeratutako leloa.

Hilaren 24an izango da lehen ekitaldia: doako bisita gidatua. Nahiz eta doakoa izan, aurrez izena ematea eskatzen dute. Familia osoari eskainia badago ere, haurrak izango dira protagonista. «Hamar urtez milaka haur eta gazte igaro dira Tolosako museotik, eta hunkitu, gozatu eta ikasi egin dute. Orain, Topic-ek ikasleei galdetuko die nola ikusten duten museoa, eta helduei edo beste haur batzuei azalduko die zer ikusten duten bereziki haiek museoko txotxongiloetan», azaldu dute antolatzaileek.

Bigarren jarduera, berriz, urriaren 31n egingo da. Kasu honetan, Formosako Txotxongiloen erakusketara egingo da doako bisita gidatua. Bi saio izango dira, 11:00etan eta 17:00etan, aukeratutako hizkuntzaren arabera: gaztelania, euskara edo ingelesa. Familia giroarako prestatutako bisita honetarako ere ezinbestekoa da izena aurrez ematea. Berez, martxoaren 24an inauguratu behar zuten erakusketak, eta orain, azaroaren 1a bitarte bisitatu daiteke.

XVII. Sentsibilizazio Astea antolatu du Gaingitzen elkarteak

Egoerara egokitutako egitaraua osatu du Gorren komunitateak, pertsona gorrei gune bat eskaini, komunikazio hesiak hautsi eta zeinu hizkuntza bultzatzeko

Josu Artutxa Dorronsoro

Gorren komunitatearen mugak eta haien errealitatea gizarteratzeko eta ezagutzera eramateko lan egiten du Gaingitzen Tolosaldeko eta Goierriko pertsona gorren elkarteak. Beste urte batzere, mugak eta oztopoak gaingitzea eta sentsibilizazioa sustatzea helburu izanik, XVII. Sentsibilizazio Astea antolatu dute elkarteak ordezkariek.

Asteartean egin zuten ekimenaren aurkezpena Tolosako udaletxeke pleno aretoan. Bertan izan ziren elkarteak ordezkariek, Olatz Peon Tolosako alkatearekin batera. «Pertsonen integrazioan urratsak egiten jarraitu behar dugu, are gehiago egungo testuinguruan, musukoen erabilerak komunikazio oztopoak eta komunitate honek dituen beharrak areagotu baititu, eta horiek bistaratzea eta herritarren sentsibilizazioa ezinbestekoa da», adierazi zuen alkateak.

COVID-19aren pandemiak eragindako osasun egoerara moldatu behar izan dituzte aurtengo ekitaldiak. Hori dela eta, eskaintza mugatuagoa izango da. Larunbat honetan izango da lehen jardura: *COVID-19 eta osasuna* hitzaldia. Bestetik, Zeinu Hizkuntzako Filmen XI. Nazioarteko Jaialdia ospatuko da azaroaren 14an. Egun berean, arratsaldean, hitzaldia eskainiko du Santiago Erigola ikertzaileak.

Gorren komunitatea osatzen duten pertsonen errekonozimendurako espazio bat eskaintzea eta aukera berriak sustatzea da



Asteartean egin zuten aurkezpena, Gaingitzeneko eta udaleko ordezkariek, Tolosako Udaletxean. TOLOSAKO UDALA

aurtengo edizioaren helburuetako bat. Horrez gain, entzuten duten pertsonak gorren komunitatera gerturatzea ere lortu nahi da, gorrek egunerokoan dituzten komunikazio arazoei irtenbidea eman eta zeinu hizkuntza bultzatzeko.

TOLOSAKO XVII. SENSIBILIZAZIO ASTEA

Urriak 24, larunbata

18:00. COVID-19 eta osasunahitzaldia, kultur etxean. Edukiera mugatua: 60 pertsona. Aurrez eman behar da izena gaingitzent-g@hotmail.com helbidera mezuaz bidaliz.

Azaroak 14, larunbata

11:00. Zeinu Hizkuntzako Filmen XI. Nazioarteko Jaialdia, Leidorren.
18:00. Santiago Frigola Kataluniako zeinu hizkuntzako ikertzailearen hitzaldia, kultur etxean.

Zerbitzua indartuta, eta bi bideo zeinu hizkuntzan

J. Artutxa Dorronsoro

Komunikazio irisgarritasunaren garrantziaz jabetuta eta udalaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetze aldera, udalak 2019an sinatutako lankidetzak hitzarmena berritu du Eskuaire eta Gaingitzen elkarteekin. Horrela, udalaren zerbitzu eta komunikazioak gorren komunitatearengana gerturatzeke urratsak ematen ari dira elkarrekin.

«Herritarren ongizatea bermatu eta hobetzeko urratsak ematea da udalaren lehentasunetako bat». Horregatik, tolosar guztien informaziorako eskubidea bermatzeko, Zeinu Hizkuntza Interpretazio Zerbitzua indartu dute. «Entzumenaren funtzio-aniztasuna duten pertsonen eskubideen alde egitea eta herritarren sentsibilizazioa da helburua».

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2019an egindako desgaitasun balorazioen datuen arabera, entzumenari dagokionez, 194 tolosarrek dute funtzio-aniztasuna. «Zerbitzu berriarekin, Tolosako herritarren aukera eta eskubide berdintasuna bermatuko da, eta udala eta herria guztientzat irisgarriagoa izango da», adierazten dute udaletik.

Hitzarmenari esker, ekintza publiko jakinetan, udaletxean izapideak egiterakoan edo sailekin harremanetan jartzerakoan zein antolatzen diren jardueretan, zeinu hizkuntzako interpretak eskatu ahal izango dute herritarrek. Gainera, abuztuaren aurreratu zuenez, udal langileei, irakasleei, dendariei nahiz tabernariei zeinu hizkuntzaren oinarriko formazio saioak eskaintzeko asmoa zuen udalak.

Bestetik, duela aste batzuk, Gizar Zerbitzuen Gidari eta Zeinu Hizkuntza Interpretazio Zerbitzuari buruzko bi bideo informatibo argitaratu zituen udalak, zeinu hizkuntzan. «Udal zerbitzuak herritar guztiengana zabaltzen jarraitzeke aurrerapauso bat da», nabarmentzen dute. Bi bideo horiek eskuragarri daude www.tolosa.eus webgunean.

Aurrerantzean, udal zerbitzu gehiagori buruzko informazioa zeinu hizkuntzan argitaratzea da asmoa. «Herritar guztien informazio eta berdintasun eskubideak bermatzea eta entzumenaren funtzio-aniztasuna duten pertsonen komunitatean parte hartzeko dituzten aukerak areagotzea da helburua; baita zerbitzuak entzumen arazoak dituzten pertsonen behar eta gaitasunetara egokitzea ere».





Plaza Etxeberri eraikinaren azpialdean dago kokatuta taberna-jatetxea. J.M.

Plaza Etxeberri astelehenean zabalduko ditu ateak

Zizurkilgo Udalak iaz erosi zuen Herrigunean dagoen eraikina eta tabernaren ustiaketa esleitu ondoren, Jose Garciak hartuko du ardura

Erredakzioa Zizurkil

Urriaren 26an, astelehenean egingo dute inaugurazio ekitaldia eta ordutik aurrera martxan izango da azken hilabetetan itxita egon den Plaza Etxeberri taberna-jatetxea. Egunekeo menua, asteburuetako menu berezia, karta, ogitartekoak, hanburgesak, taberna eta terraza zerbitzua eskainiko dituzte Jose Garciak eta bere lantaldeak. Egutero 09:00etan zabalduko dituzte ateak; Eguerdian bazkariak emango dituzte eta iluntzean, afariak. Horrek baldintzatuko du itxierako ordua.

Ostalaritza munduan eskarmentu handikoa da Garcia. Donostiako Gros auzoan jatetxea du martxan, eta urte asko daramatza sukaldari lanetan. Gogotsu dago erronka berriarekin: «Oso jende jatorra ezagutu dut orain arte egindako bidean. Jatetxea mar-

txan jarri eta lanean hasteko gogoz gaude; zerbitzu txukuna eskaini nahi dugu. Gauzak ondo egitea gustatzen zaigu. Martxan jartzen garenean, herritarren eskura egongo gara, herrian antolatzen diren ekitaldietan lagundu eta parte hartzeko prest».

Berrikuntzak ere izango dira jatetxean, askotariko eskaintza egin nahi baitute. Sagardoa txotxetik edateko aukera jarriko dute Plaza Etxeberrin. Egunekeo menua eskainiko dute astegunetan, karta afarietarako eta asteburuetan menu berezia eta karta. Gazte jendearentzako ogitartekoak ere eskainiko dira.

Langile bila dabil Garcia uneotan. Jangelan zerbitzari lanak egiteko bi pertsona behar dituzte, barrarako beste bat, sukaldari laguntzaile bat, eta garbitzaile bat. Zizurkildarrei luzatu diete lan eskaintza.

BIHAR II. PINTXO TERTULIA EGINGO DUTE ZENTROAN

Plaza Etxeberri eraikinak beheko solairuko jatetxeaz gain beste espazio batzuk ere baditu eta hauei zein erabilera eman erabakitzeko parte hartze prozesua jarria dute martxan Zizurkil.

Udalarekin batera, Herri Bizi Gune elkarteak darama prozesuaren gidaritza. Urtarrilaren 10ean egin zuten lehenengo pintxo tertu-

lia eta irailaren 19an irteera bat antolatu zuten espazioak kudeatzeko dauden beste hainbat eredu eza-gutzeko. Besteak beste, Ozaeta, Garaion, Latasa eta Jauntsaratzeko ekimenak bisitatu zituzten.

Bihar, 19:00etan, Herriguneko Zentroan II. Pintxo tertulia egingo dute eta bertan parte hartzeko aurrez eman behar da izena herribizigune@gmail.com helbidean. Besteak beste, honako galderei erantzungo diete bertaratzen direnek: «Zein da Plaza Etxeberri eraikinerako ditugun ideiak? Zein behar aseko ditu?».

Mugak gurutzatzen dituzten emakumeez aritu dira Villabonan

CEAR-Euskadik 'Sei metroko hesia saltatu nahi izan zuen emakumea' liburua aurkeztu zuen atzo Subijana etxean; Bost emakume migratzaileen testigantza jaso dute

Jon Miranda Amasa-Villabona

Saharaz azpiko Afrikako emakumeek bizi duten indarkeria ikusarazteko helburuarekin CEAR-Euskadik egindako ikerketa batean dago oinarrituta *Sei metroko hesia saltatu nahi izan zuen emakumea* liburua. Errefuxiatuen eskubideen alde lanean diharduen erakundeko Intzidentzia eta Parte Hartze Sozialerako teknikaria da Beatriz de Lucas: «Trantsituan dauden emakumeengan jarri genuen arreta ikerketan, iruditzen zitzaigulako mugako gunehorietan gertatzen denaz kontakizun oso maskulinizatuak ematen direla eta ia ez dugula jakiten emakumeekin zer gertatzen den».

Atzo Villabonako Subijana etxean liburua aurkeztu izan zen De Lucas, CEAR-Euskadiko Ane Garairekin batera. Telematikoki parte hartu zuen egileak, Amanda Andradesek. Liburuaren euskarazko itzulpena Irene Aldasorok egin du eta irudiak Amelia Celaya ilustratzaileak egin ditu. Euskaraz edo gaztelaniaz eskuratu daiteke liburua www.cear-euskadi.org webgunean.

Aipatutako ikerketan parte hartu du Andradesek eta libururako bost emakumeren testigantzak jaso ditu. De Lucasen hitzetan, elkarrizketa «sakonak» dira emakume migratzaile hauei egin zaizkienak. Bostetik lau, gainera, Euskal Herrian bizi dira gaur



CEAR-Euskadiko kideak liburua aurkeztu zuten atzo Subijana etxean. J.M.

egun. «Euren jatorrizko herrialdeetan zein egoera bizi duten eza-gutarazi nahi genuen, zergatik atera behar izan duten bertatik; Gero, bidea nola egin duten ere erakutsi nahi genuen, zein estrategia jarri behar izan dituzten martxan bizirauteko, zein biolentzia mota topatu dituzten bidean; Amaitzeko, muga zeharkatzera-koan emakume hauek hemen zein bizimodu daramaten jakitea ere interesgarria iruditzen zitzaigun», esan du De Lucasek.

CEAR-Euskadiko kideen hitzetan, mugako toki horietako bat da Maroko, «itxarongela» moduko bat. «Pertsona migratzaileekin beti erabili izan du politika errepresiboa. Baina orain indarkeria

areagotu egin da. Argi dago, politika hori Marokok exekutatu baina Europako herrialdeek finantzatzen dutela. Subkontratututa daukate herrialde hori, migrazioaren kontrola egin dezan».

De Lucasen ustez, emakume hauek bidean topatu behar izan dituzten esplotazio sare asko migrazio politika horren ondorio zuzena dira. «Emakume hauei ezinezkoa zaie muga modu legal eta seguruan zeharkatzea, eta beraz, ezin dute bidea autonomiaz egin». Askotariko biolentzia zeharkatzen dute mugak gurutzatzen dituzten emakumeen bizitzak. Marie, Amina, Yanelle, Aya eta Joyrenak bildu dituzte liburuan.



zozketak

Atarikideentzat menu bat daukagu

Orexako Ostatuan bi lagunentzako KMo Babarrun menua.



Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

Atarikideentzat bi sarrera ditugu

Kukai taldearen 'Gaukoak' dantza ikuskizunerako bi sarrera.

Ostirala, urriak 23, 20:30
Leidor Antzokian (Tolosa)



Emakume helduen indarkeriaren aurkako foroa egingo dute Tolosan

Maribel Pizarro, Nerea Almazan eta Oihana Andueza hizlariak hartuko dute parte Onekak antolatutako foroan; asteartean izango da, 10:00etan, udaletxeko pleno aretoan

Irati Saizar Artola Tolosa

Hurrengo asteartean, urriaren 27an, Emakume helduen indarkeriaren aurkako I. foroa egingo da Tolosako udaletxeko pleno aretoan. Foro hori Oneka emakume pentsiodunen plataformak antolatu du, Emakunderekin elkarlanean. 10:00etan emango zaio hasiera egitasmoari eta pandemia dela eta, edukiera mugatu egin behar izan dute; dagoeneko plaza guztiak beteta daudela adierazi dute.

Lehen foro horretan parte hartuko duten hizlariak hiru izango dira: Maribel Pizarro batetik, Itxaropena Telefonoko ardura-duna eta psikologoa da; bestetik, Nerea Almazan, Matia fundazio-ko psikologoa da eta bere esperientzia kontatzeko tartea hartuko du; azkenik, Oihana Andueza, hau ere psikologoa, indarkeria zer den esplikatuko du eta emakume horien irteera nola ikusten duen ere azalduko du. Hiru hizlari horiek beraien ekarpenak egingo dituztela azaldu du Neka Berriotxoak Oneka plataformako kideak, eta ondoren, foroarekin jarraitzeko, eztabaidarako tartea hartuko dute, «gaiaren inguruko kezka, zalantza eta gogoetak elkarbanatzeko».

Foroa egitea oso garrantzitsua dela esan du Mila Canseco Oneka taldeko kideak, eta salatu du emakume helduek ere indarkeria jasaten dutela. «Foro horre-



Emakume helduek jasaten duten indarkeria izango da hizpide hurrengo astean egingo den foroan. I.S.A.

tan, indarkeria zentzu guztietan landu nahi dugu, izan ere, indarkeria matxistaren barruan, arlo ekonomikoa ere biolentzia da, bakardadea ere biolentzia da eta familiak baztertzea ere biolentzia da». Modu horretara, indarkeria mota guztiak landu nahi dituzte, hori bai, gehienbat emakume helduei eragiten dietenak.

Hala, emakume helduetan jarri nahi dute arreta, eta helburua, besteak beste, gizartea kon-

tzientziazetik harago doala azaldu du Cansecok: «Ez dugu soilik gizartea kontzientziatu eta mugiarazi nahi, erakundeak eta politikoei ere mugitu egin behar dute; lan handia egin dugu bide honetan, eta ordua da ondo bizi-tzeko, bizi kalitate duin bat izateko; gure eskubide horiek zaindu ditzaten nahi dugu».

Foro hori Tolosan ospatuko da, baina programa osatuago bateko hitzordu bat dela zehaztu

du Berriotxoak: «Urtarrilean proiektu bat aurkeztu genion Emakunderi eta onartu egin ziguten; proiektu horretan hiru zine emanaldi, bi hitzaldi eta Tolosan egingo den foro hau antolatzeke nahia erakutsi genuen, eta Emakundek onartu egin zue-nez, ekintzak antolatzen ari gara». Gainerako ekimenak eskualdetik kanpo egingo dituzte.

Gipuzkoan mugitzen diren emakume talde ezberdinak gon-

bidatu dituzte forora, baita Eus-kadiko Emakume Alargunen El-karteen Federazioko kideak ere; Maire Bilbao lehendakaria zen etortzekoa, baina pandemia ego- era dela eta ezin izango du ber- tan egon, eta bere ordeaz, beste kide bat gerturatuko da. Eta Na- farroa eta Gipuzkoa arteko mu- gak itxi dituztenez, Nafarroatik etortzekoak ziren hainbat kidek ezin izango dutela parte hartu aurreratu du Berriotxoak.

BURU-BELARRI LANEAN

Oneka emakume pentsiodunen plataforman momentu hauetan zaintza da erdigunean duten gaia. «COVID-19aren eraginez azaleratu egin dira gizarte hone- tan dauden hutsune guztiak, besteak beste, ekonomikoak, osasun arlokoak eta baita pen- tsiodunenak ere», dio Berriotxo- ak. Modu horretan, azken bola- dan egiten ari diren mobilizazio- etan presente dago Oneka, aldarrikapenekin bat egiten bai- tute. Baina hortxe luzatu du gal- dera Berriotxoak: «Zeinen gain dago zaintza?».

Oneka plataformatik pauso txikiak ematen ari direla dio Cansecok, baina «beharrezko- ak». «Esaterako, talde txikietan elkartzen garenean, nola hitz egiten dugun arreta jartzen dugu; konturatu gabe ere, mas- kulinoan hitz egiten dugu asko- tan, eta hori zuzentzen saiatzen gara taldekideen artean», dio.

Hilberriak eta urteurrenak



Amparo Monroy Descalzo

- Goian bego -



*Elkarrekin igarotako une goxoengatik
beti gure bihotzean izango zara.*

Koadrillako zure lagunak:

Joan Isidro eta Anttoni, Pedro eta Lauri, Joxemari eta Maria Karmen.

ORDIZIA, 2020ko urriaren 22an



Harkaitz Bodas Baztan

Urriaren 20an hil zaigu Orion, 32 urterekin soilik

- Goian bego Harkaitz -

Orion utzi gaitu gure lagun handi zaraiztarak. Bere lagun guztien partez, gogoan izango zaitugu BETI

Nos dejó en Orio nuestro gran amigo zaraiztarra. De parte de todos tus amigos, te recordaremos SIEMPRE

ZARAUTZEN, 2020ko urriaren 22an

ataria jarrita
Urola Kosta eta
Goierriko
Hitzeran DOAN

ESKELAK

ataria@ataria.eus •

Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenara

18:30ak arte hartzen ditugu •

Ostegunetan 11:30ak arte

hartzen ditugu

Bigarren partidari begira

Lehenengo partida galdu egin du 1. Maila Nazionaleko Tolosa CF-k, Realaren aurka

Imanol Garcia Landa Tolosa

Etxean hasi du liga Tolosa CF-ko 1. Maila Nazionaleko taldeak. Realaren bigarren taldearen aurka 0-3 galdu zuen Berazubín aurreko larunbatean. Lehen partida hori atzean utzi eta bigarrenari begira daude Imanol Caberok

entrenatzen dituen jokariak. «Reala aurtan igo da eta bertan duen jendearekin bagenekien zaila izango zela», dio Caberok. Hasieratik Realak izan zuen baloia, eta Tolosakoek une batzuetan ondo defendatu bazuten ere, bi desoreka izan zituen taldeak eta 22. minuturako 0-2 jarri zen partida.

1. Maila Nazionalea bi azpimultzotan banatu dute, bakoitza zortzi taldekoko. Lehenengo hiruak sailkatuko dira igoera fasea jokatzeko eta besteek jaitsiera fasea jokatu beharko dute. «Gure azken helburua maila manten-

tzea da», zehaztu du Caberok, «baina lehen fase honetako helburua aurreko denboraldian izan ez genituen sentsazio onak izatea da: jakitea une bakoitzean zer egin nahi dugun». Arlo taktikoan egin nahi du lan Caberok, eta bigarren faserako indartsu iristea.

Zenbait aldaketa izan dira taldean. Hainbat urteren ondoren Leire Lopetegik eta Alaia Goñik utzi egin diote jokatzeari, eta larunbatean omenalditxoak jaso zuten taldekideen partetik. Bestalde, Nahia Apiricio Realera joan da eta Nahia Alvarez Oiar-



Leire Lopetegik eta Alaia Goñik omenaldia jaso zuten larunbatean. ATARIA

tzun taldera. Bigarren taldetik Ainara Carné igo da, eta Oihana Ugartemendia, bi urtez lesioatuta egon ondoren, berriro ere taldearekin normaltasunez ari da. Arratiaren zelaian jokatu dute hurrengo partida, larunba-

tean, 18:00etan. «Gure azpimultzoa oso indartsua da eta ez dugu partida lasairik izango», zehaztu du Caberok. «Arratia gurekin batera igo zen maila honetara, eta gogo handia dugu beraien aurka partida on bat egiteko».

Azkenean

Bai, 7 hilabete pasa dira azken partida jokatu genuenetik eta birus madarikatuak mundua hartu zuenetik. Martxoaren 15ean etxean entzeratu ginen agintarien agindua betetz, eta gure bizitzak erabat aldatu ziren 360 gradu bira emanez. Unibertsitateko ikasketak *online* izatera pasa ziren, lagunekin egiten genituen larunbatetako afariak ahaztu genituen eta guri gehien gustatzen zaiguna ere kendu ziguten.



Aulkitik

Naroa Jauregi

Tolosa CF, 1. Maila Nazionalea

Batzuentzat baloiari ostikadak ematea soilik dena, guretzat talde moduan batzen gaituena da. Ondorioz, txapelketa itzuliko ze-

naren esperoan, etxeko trankuluak hartu eta bakoitzak zuen espazioarekin moldatu behar izan genuen. Bideodeiak ere egin genituen gure arteko harremana eten ez zedin. Azkenean, txapelketa bertan behera gelditu zen eta mailari eutsi genion ez baitzen jaitsierarik egon.

Legeari jarraituz eta Espainiako Futbol Federazioak esandakoari kasu eginez, abuztuaren erdialdean hasi genuen hain arraroa izaten ari den urtearen denboraldi-aurrea. Ilusioz gainezka hasi ginen, denbora asko pasa baitzen azkenekoz baloierekin kontaktuan egon ginene-

tik. Bederatzi astez entrenatzen ibili ondoren, eta hainbat lagunarteko jolastu eta gero, txapelketako lehenengo partida iritsi zen.

Partida hasi aurretik gure taldekideak izan diren Leire eta Alaia omenaldi txiki bat egin genien, gurekin taldean partekatututuzten momentuak eskertzeko. Horretarako bakoitzari taldeko kamiseta oparitu zitzaion. Mila esker bikote!

Partidari dagokionez, Realaren aurka jokatu genuen. Bagenekien ez zela partida erraza izango, aurkari sendo bat baikenuen aurrean. Azkenean 0-3 gal-

du genuen. Partidako sentsazioak ez ziren txarrak izan, asteetan zehar landutako gauzak zelaian islatu baitziren.

Orain asteburuko partidaren pentsatzen hasi gara, Arratiaren aurka jokatzeko baitugu. Gogor irtingo gara zelaira eta gure jokoa eginez 3 puntuak etxera ekartzeko saiatuko gara. Denboraldi zail baten aurrean gaude, bizitzeko ari garen egoera ere berezia baita. Hala ere, ilusioz gainezka gaude eta ziur nago ez dagoela aurkaririk honetan irabaziko gaituenik.

Gora Tolosako neskek! Aupa Tolosa trakatra!

Hirugarren Mailako Tolosa CF-k lehen puntua eskuratu du ligan, Sestao River taldearen zelaian

I. Garcia Landa Tolosa

Emaitza onarekin hasi du Hirugarren Mailako Tolosa CF-k denboraldia, Sestao River taldearen etxean golik gabeko berdinketa lortuz aurreko asteburuan. Mikel Arruabarrenaren lehen urtea da entrenatzaile modura, eta gustura dago taldeak lehen partidaren emandako itxurarekin: «Sestao River Bigarren B mailara igotzeko taldea da, jokari berri asko dituen, eta nik uste dut Hirugarren Mailako zelairik konplikatuen izan daitekeela. Guretzako puntua oso garrantzitsua da, bai lanak ondo egin genituelako, eta erakusteko edo-



Sestao River eta Tolosa taldeen arteko partidaren une bat. ATARIA

zeinek in lehiatzeko aukera dugula gu ondo bagaude. Horrela arituz gero emaitzak etorriko dira».

Denboraldi berria bi azpimultzotan banatuta hasi dute Hirugarren Mailakoek. «Ez genekien hasiko zen ala ez, urduritasuna

ere izan da, eta behintzat mar txan jarri gara», esan du Arruabarrenak. «Azpimultzo zaila tokatu zaigu, bestea baino zailagoa delako, gurean Sestao bera, Gernika edo Somorrostro bezalako taldeak daudelako». 11 talde daude Tolosaren azpimultzoan. Sail-

kapeneko hiru lehenengoei igoera fasea jokatu dute, hurrengo beste hiruetatik bat ere sailkatuko da igoera faserako eta azkeneko bostak jaitsiera fasea jokatu beharko dute.

Arruabarrenak argi du Tolosa Hirugarren Mailako taldea dela, eta mailari eustea izango da denboraldi honetako helburu nagusia. Hori horrela, liga azken bost postuetatik gora bukatu nahi dute. «Dauden taldeekin zaila izango da, baina ez da inoiz etsi behar. Gure asmoa da lehen fase honetan ahal den puntu gehien lortzea, ondorengo faserako kontuan hartzen baitira ere», zehaztu du Arruabarrenak. «Hasiera garrantzitsua da, puntu asko lortzeko aukera gehiago izaten baita».

Jokari gehienek jarraitzen

dute taldean, baina zenbaitzuk taldea utzi dute: Ruben Garcia, Xabi Olaizola, Unai Olaizola eta Julen Vecino. Realetik hiru jokari etorri dira: Beñat Almandoz, Kaiet Agote eta Peru Ruiz, eta horrez gain Mikel De Alba. Tolosak hurrengo partida Berazubín jokatu du, etzi, 16:30ean, Gernikaren aurka. Zaleek harmailera joateko aukera izango dute.

BILLABONA FKE	
Arratzain futbol zelaia	
1. KADETE MAILA	Larunbata 24, 11:00etan
BILLABONA F.K.E.	LAZKAÑO K.E.
2. JUNIORETZ JUBILEU MAILA	Larunbata 24, 16:00etan
BILLABONA F.K.E.	DANEÑA K.E.
1. ERREGIONAL MAILA	Larunbata 24, 18:30etan
BILLABONA F.K.E.	IKASBERRI K.E.



OSTEGUNA, 2020KO URRIAK 22
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 21

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Itzalitako kalabazen berpizteahitzaldia, Jaime Altunaren eskutik, Gurean, 19:00.
Tolosa. Zaldibar Zona Cerolanaren aurkezpena. Kultur etxea, 20:00.
Tolosa. Corazonada filma, Leidorren, 20:30ean.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. I. Olarreaga. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.
TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra-mendikalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

Iker Ibarluzea

Gaur. Goizean hodeiak eta ostarteak eta giro polita izango dugu. Arratsaldean zerua estaltzen joango da. Temperatura 20-21 gradura igoko da.
Bihar. Goizean hodeitza handi xamarra eta euri pixka bat izango dugu. Eguerditik atertu eta ostarteak zabalduko dira. Temperatura 19-20 gradura igoko da.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erromerien inguruan ariko dira, Inpernuko Poza jardunaldian

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak antolatutako ekimena Tolosako kultur etxean egingo dute, urriaren 31n; hitzaldia eta mahai ingurua izango dira

Erredakzioa Tolosa

18. aldiz egingo du Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Inpernuko Poza Jardunaldia. Orain arte Donostian egin izan dute, baina aurten Tolosara lekualdatuko dute hitzordua. Bada beste aldatarik gainera, egun bakarrean zehar egingo baitute aurten. Urriaren 31 aukeratu dute eta erromerien inguruan ariko dira.

Trikitixa Elkartetik esan dute-nez «erromeriak izan dira trikitiaren sorburu eta ikasteko toki, erromerietatik abiatuz sortu izan zaizkigu hainbeste trikitilari bikain. Erromeriek gainera funtzio sozial ezinbestekoa bete izan dute eta gizartearekin batera eraldatuz joan dira; garai bateko txistu eta danbolinez osaturiko erromerietatik, dultzaina eta atabaletik pasa eta soinu txiki eta panderoa nagusitu diren bitartean, dantza izan da bidea urte guzti horietan, sozializatzeko ezinbestekoak izan diren eremuetan», gaineratu dute.



I. Tolosaldeko Trikitixa Egunko une bat. IMANOL GARCIA

Besteak beste, erromerien gaur egungo funtzioaren inguruan hitz egin nahi dute eta horretarako bi ekitaldi izango dira. Batetik, hitzaldia eskainiko dute Aiko taldeko Sabin Bikandik eta Patxi Labordak 12:00etan hasita. Eta bestetik, 16:30ean, mahai ingurua egingo dute Aritz Ibañen gidaritzapean. Xabier Etxa-

be, Xabier Itçaina eta Joseba Altube izango dira hizlariak.

Bi hitzorduetan erromerien munduan eskarmentu handiko pertsonak izango dira. «Beraien ibilbide oparoak lagundurik erromeriaren kontzeptua eguneratzeko hausnarketa bikaina eskaini ahal digu. Erromeriek izan duten eraldaketa euren baitan

bizitu dute Euskal Herriko plaza ezberdinetan», esan du elkarteak.

MAHAI INGURUA

Mahai inguruan erromeriaren lurraldez lurraldeko aldaketaz ariko dira Aritz Ibañez dantzari eta kazetari nafarrak gidaturik: «Euskal Herrian zeharreko eta lurralde ezberdinen ikuspegiak parekatzeko gonbidatuak ekarri nahi izan ditugu mahai ingurura». Gipuzkoatik, esaterako, Xabier Etxabe ariko da. Eusko Ikaskuntzako partaidea da eta hainbat ikerketa eginak ditu bere jaioterria den Zarauzko kulturari buruz bertako dantza taldeak aitzakia hartuta. Xabier Itçaina Ipar Euskal Herriko ordezkaria izango da. Emile Durkheim Bordeleko ikerketa zentroko zuzendaria da. Azken hizlaria, Joseba Altube izango da. Bizkaiko erreallitatearen inguruan ariko da. Hainbat urtez Euskal Dantzarien Biltzarreko lehendakari izana da.



Parking
KARABANAK ETA AUTOKARABANAK
Ibai-Gain 688 778 660

Parking Berrobi: Karabanak eta autokarabanak
Parkingibaigain@gmail.com
Karabana edo autokarabanentzat zerbitzu merkea